

Inbertsio-politika (laburpena)

Funtsaren %75, gutxienez, errenta aldakorreko aktiboetan egongo da; hortik %75 gutxienez Nasdaq 100 indizeko baloreetan, kapitalizazioa aldez aurretik erabaki gabe. Errenta aldakorreko gainerako zatia ELGEko herrialdeetako jaulkitzaileetan inbertituta egongo da. Errenta finkoan, jaulkitzaile publiko nahiz pribatuaren aktiboetan inbertitu ahal izango du, kotizatuak izan ala ez, likidoak badira, aldez aurretik erabaki gabe baloreek kotizatuak duten merkatuak edo herrialdeak, rating-a edo batez besteko iraupena. Dibisa arriskua %0 eta %100 artekoa izango da.

*Funtsak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak eta/edo alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamendua 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenean eta/edo gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabaketan txertatzen ditu.

*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke.

*FUNTS HONEK %25 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, BERAZ, KREDITU-ARRISKU HAUNDIA DAUKA.

Ezaugarri Orokorrak

2024/01/31ra

Ondarea:	65.746.960,99
Komisioak guztira:	%2,00
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolto Komisioa:	%0,00
Fondo mota:	NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKORRA
Arrisku-profila:	5 en una escala del 1 al 7
Inbertsiorako gutxieneko epea:	5 urte

2024/01/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	3 urte	5 urte
%0,49	%17,21	%0,49	%17,33	%2,71	%10,18

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2024	2023	2022	2021	2020	2019
%0,49	%26,39	-%27,42	%16,93	%28,22	%28,49


*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2024/01/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%15,23
Lurrunkortasun 3 urte**	%20,44

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

KUTXABANK BOLSA NUEVA ECONOMIA, FI CLASE ESTANDAR



Hileko iruzkina


2024. urtea merkatuen, aurreko urtearen amaierari jarraituz, baikortasunarekin hasi zen. Horren arrazoia da ingurune ekonomikoa, oro har, moteldu egiten dela, baina ez modu larrian, eta desinflazioa gero eta argiagoa dela, ta horrela jarraituko dula banku zentralen maila objektiboak lortu arte. Horrek aukera ematen du interes-tasen etorkizuneko beherapenak hasteko epeak aurreratzeko. Hazkundearen, inflazioaren eta etorkizuneko moneta-jardueren faktore horiek berriro ere foku eta gidari izan dira urtarrilean. Datu makro bakoitza eta banku zentralen bilera bakoitza adi aztertu dira, murrizketak noiz hasiko diren eta zein azkar gertatuko diren arrastoren baten bila. Hala ere, inbertitzaileek euren euforia zertxobait moteldu behar izan dute, izan ere argitaratutako azken inflazio datuak, (KPI amerikarra espero baino gehiago igo zen %3.4.raino, ta, eurogunekoa %2.9.raino igo zen) uste baino denbora gehiago beharko dala interes-tasen jaitsiera osatzeko ikusarazten dute, eta, bestalde, diru-agintariek zabalduzako mezuengatik, non, argi uzten duten etorkizunak interes-tasen jaitsierak ekarriko dituela, baina espero baino txikiagoak izan daitezkeela eta ustez baino beranduago iritsiko direla. Gainera, arrisku geopolitikoak areagotu egin dira, Ekialde Hurbilean tentsioa areagotu egin, Itsaso Gorriaren blokeoak prezioetan maila globalean dituen ondorioengatik. Horrez gain, Ukrainan gatazka belikoa bukatzeko itxaropenik ez dago, eta kasu horrek, Europarekiko hurbiltasuna dela eta, ondorio handiagoak ekartzen ditu. Mehatxu hauek diela ta inflazioak izandako hobekuntza onartzen badute ere, Banku Zentralak erne jarraitzen dute. Horregatik, instituzio huen azken bileretan, bai FEDek eta bai EBZk egonkor mantendu zituzten tasak, baina bi entitateak berehala murrizteari buruzko itxaropenak hozten saiatu ziren. Bitartean, ta enpresen emaitz onak ezagutzen doazen einean, NDF.aren azken txostena argitaratu da, adieraziz arriskuak, oro har, orekatuta daudela eta lurreratze leuna ikus daitekeela. 2024an % 3,1eko mundu mailako hazkundera egon daitezkeela adierazi zuen, aurreikusitakoa baino % 0,2 gehiago. Hala ere, emaitza positiboa izan da munduko burtsentzat. European, Eurostoxx 50 indizea % 2,81 igo da. Bestalde, Ibex35ek % 0,24ko beherakadarekin itxi du hilabetea, baina 10.000 puntuko kotari eustea lortu du. Amerikako indize nagusiek portaera hobea izan dute, eta horietan balio teknologikoak nabarmendu dira; S&P 500ek % 1,59ko aurrerapenarekin itxia lortu du. Gainerako eremu geografikoetan, Nikkei indizea gainerako burtsentatik aldendu da, % 8,43 igoz, aldiz burtsa emergenteak balio negatiboekin itxi dute, Txinari buruzko zalantzak direla eta. Errenta finkoan, zor subiranoaren interes-tasen igoera orokorrak eta kredituaren diferentzialen handitzea egon dira. Alemaniako 10 urterako errendimendua igo da, % 2,17raino igo da. Ez da hain nabarmena izan AEBetako gorakada, hamar urterako bonuaren errentagarritasuna oinarritzko 3 puntu igo baita, % 3,91raino. Azkenik, euroa ahuldu egin da dollarraren aldean, 1,081 \$/euro-ko balioa lortuz. Ta, lehengaiak dagokienez, Ekialde Ertaineko eta Itsaso Gorriko tentsio geopolitikoaren gorakadak petrolio gordinaren igoera handiak ekarri ditu.

Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
AC. MICROSOFT CORP	%3,62
AC. APPLE INC	%3,49
AC. AMAZON COM INC	%2,04
AC. NVIDIA CORP	%1,84
AC. ASML HOLDING NV NY REG SHS	%1,44

Errenta aldakorreko posizio nagusiak: zuzeneko esposizioa barne.
 Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala: zuzeneko esposizioa eta zeharkako esposizioa deribatuen eta ETF-en bitartez.

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratzeko balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.